

Poesia

JOKIN ERKOREKA

Banda

BLAS DE OTERO - BILBO URIA
NAZIOARTEKO XIII. POESIA LEHIAKETA



erein

BANDA

Poesia, 45

Lan hau erabiltzeko unean kontuan hartuko dira titularrek ezarritako baldintzak.
Horien berri jakiteko jo ezazu EKKIra, egile eskubideen euskal agentziara (www.ekki.eus)

BILBOKO UDALAK ETA BLAS DE OTERO FUNDAZIOAK ANTOLATZEN DUTEN BLAS DE OTERO - BILBO URIA
XIII. POESIA SARIA IRABAZI DU LIBURU HONEK.

1. argitalpena: 2021eko urrian

Azalaren eta liburuaren diseinua:

Iturri

Maketazioa:

Erein

Azaleko irudia:

Iñaki del Olmo Madariaga

© Jokin Erkoreka

© EREIN. Donostia 2021

ISBN: 978-84-9109-786-0

L. G.: D 1289 - 2021

EREIN Argitaletxea.

Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

erein@erein.eus

www.erein.eus    

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008

e-mail: edizioak@itxaropena.net

www.itxaropena.net

Jokin Erkoreka

BANDA

Blas de Otero - Bilbo Uria

XIII. Poesia Lehiaketa



erein

Iñigo Perez Gervasiori
eta
Paule San Salvador del Valle Aranari:
etxea norbera da
eta maite ditugunak
barneko maizterrak

Hedoiek ezkatak lez zerua estaltzen duten goiz honetan,
gure programazioa hastearekin batera,
gure babesleen
mezu bat:
ausartzen al naiz
unibertsoa asaldatzera?



BELTXARGA-KANTA

Has gaitezen
behar bezala:

alboratu eginen naiz
txinaurrien eresia ez oztopatzeko,
bide emateko eguzki-inar erradiaktiboei,
barruan entzun dadin kanpoko iskanbila;

erditik tolestuko naiz
arbasoei burugaineko koro zimela
eta ondorengo belaunaldiei sudurzulo iletzuak erakusteko
gaizki interpretatu daitekeen
belaunikatze batean;

angelu ezinezkoa egingo dut
herriaren ingerada marrazteko
gizakiz beteriko mapan;

hau guztia eta gehiago
ulertu beharra dut

munduarentzako
beltxarga-kanta bat
asmatzeko.

BANDA

Hiriaren tripa
alderantzikatueta
giza kultiboak
pilatzen dira,
trumilka.

Koipetu bako bandaren
kurrinkaz deitzen ditut:
alferrik.

Elioten eremuko
hizkuntzan
erasan diot neure buruari
harriak bezala eztarrian gora
datozen hitzak,
baina ezdeusak dira:
liluraz begiratzen dituzte hiritarrek
harri txingorrek airean marrazten dituzten
lorratz suabeak,
ezer txikitu gabe lurreratu
eta kale ertzeko legarretan
galtzen direla.

Hiria, taupakari,
indiferentzia distira txikiz beterik
altxatzen da
ene aurrean.
Sabel gora dagoen kakarraldoak bezala
kasketa egiten dut,

eta gero ahaztu egiten zait dena,
eta berriro begi hezez so egitera hurbiltzen natzaio
arazoari.

ANNAPURNAK

Kerien
hondarrez egindako
mendixka honetan
nago,
merezimenduei buruz
hausnartzen.

Hotzikara batek
astintzen dizkit hezurak
beste batzuen Annapurnek
itzala egiten
didatenean.

Mendi batzuk birrintzen dakuskit
eta beste batzuk
hedoietarantz
gora egiten,
mehatxagarri.

Denak, baina,
dardarka jartzen dira
erratza erakusten
diedanean.

INTERREGNO

Iraganaren aurrietan
eserita nagoela
asturu zitalari so
aierua dut
egokitu zaigun
interregno
hau,
eremu huts dena
alderik alde,
zela
bestalde hain gaizki ez dagoen
bizitza hau xahutzeko
lekurik onena.

BANDA II

Ate postan diraut
errari barnetik kanpora:
inguruko orok dirudi fikzio huts
eta soilik fidatzen naiz
marko honen sendotasunaz.
Hari heltzen diot
atzaparlako eskuz
fidaturik testigantzarako txanda
helduko zaidala,
soilik totalka esateko hitzok
jendetzari:

«Arratsaldeon.

Genekien hartaz fidatu ohi ginen,
baina ez genekien ezer;
ez genekien
ez genekienik ere.

Hm.

Bildotsaren begia okerra bada,
hala dira gure begiradak ere:
zohardi zela eguna
ez genion soaz ere duintasunik eman
zetorren otsoari.

Eta orain zer?

Hm.

Hona duzue nire erantzuna, herritarrok:
orain gaur da, eta ez bihar.

Hm.

Mila esker».

[mikrofonoaren estatika]